



E MAILA**GIPUZKOA PLAZAKO MULTZOA**

Egilea eta data: Jose Eleuterio de Escoriaza, 1867

Deskribapena

Multzo hau honako elementu hauek osatzen dute: 18 bizitegi eraikinek (Plan Berezi honen C babes mailan barnean hartzen direnak), plazako lorategiek (F babes mailan barnean hartzen direnak) eta Foru Aldundiko jauregiak (B babes mailan katalogatua). Jose Eleuterio de Escoriaza izan zen plaza arkupeku honen proiektua egiteko arduraduna. Eraikin monumental bat (Aldundiko jauregia) buru duen Plaza Nagusiaren ideian oinarritzen da, betiere lorategi batzuen inguruan –Ducaussek proiektatu zituen–. Eraikinak 1867. eta 1882. urteen artean egin zituzten estilo neoklasiko isabeldarrean, plazaren hiru aldetan mehelinek arteko etxeetarako fatxaden antolamendu bateratu batekin. Escoriazaren proiektuan, sarbideak arku bidez ixtea aurreikusita zegoen. Arkuak ez zituzten eraiki; bai, ordea, horien abiaguneak. Eraikinek behe oina, lau goi solairu eta estalkipeko oina dituzte. Foru Jauregiak eta lorategiez gain, etxebizitza eraikinetako baten proportzioen sistemak eta balkoien horizontaltasunaren eta zerrenda bertikalen arteko orekak ematen diote kalitatea multzoari. Multzoan, elementu finena behe oinen ordena dorikoa dela nabarmen daiteke.

"Gipuzkoa Plaza" multzoaren babes erregimena

Multzoa osatzen duten elementu katalogatuetako bakoitzerako ezarritako babes erregimena osatu egingo da ondoren zerrendatzen diren zehaztapenekin. Gipuzkoako Plazaren multzoko funtsezko balioak zaintzeko multzoaren osotasunerako ezarritako zehaztapenak dira. Zehazki:

- * Gaur egun dituzten altuera baldintzetan eta oin kopuruan finkatzen dira bizitegi eraikinak. Ez dira jasodurak onartzen.
- * Multzoko eraikin guztiek, Aldundiaren Jauregiak izan ezik, tratamendu bateratua izango dute espazio publikotik ikus daitezkeen jardunei dagokionez, estalkietan eragina duten jardunak barne: koloreak, materialak, txapituluen antolamendua, eta abar.

Ildo horretan, Bengoetxea 5 eraikina hartuko da gainerako bizitegi eraikinen tratamenduko erreferente orokor gisa (fatxadaren kolorea; erlaitzaren gaineko babes horma edo paramentua, estalkiaren abiagune gisa; estalkiak berak; eta abar), betiere honako alderdi hauekin lotzen diren salbuespenen kalterik gabe:

- Ordenantza honetan bertan berariazko tratamendua duten alderdiak (karrerapeak, txapitulak,...).
- Balkoietako burdineria. Gaur egun dauden modeloak finkatzen dira, multzoko eraikinetan nagusiki agertzen direnak ez ezik, gainerakoak ere bai. Koloreari dagokionez, guztiak kolore berarekin modu bateratuan tratatuko dira.

Testuinguru horretan, goi oinetako fatxadan dauden moldurak fatxadaren gainerakoaren kolore berarekin tratatuko dira, beste kolore bateko azpadurekin nabarmendu gabe.

- * Tratamendu bateratu hori bizitegi eraikinetan dauden hiru tarteetako karrerapeen barrualdeko fatxadetara ere zabalduko da, horietako baquetara barne. Ondorio horietarako, jatorrizko proiektuan kasuak planteatutako proposamena hartuko da erreferentziazat. Edozein zirkunstantzia tarteko, proiektu hori aurkitzeko zailtasunak

badaude eta/edo horren eduki zehatza jakiteko zailtasunak badaude, honako hauek hartuko dira aplikatzeko eredutzat:

- Txurruka-Andia kantoia, Plazaren lau kantoiei dagokienez.
- Bengoetxea 5 eraikina, karrerape horien gainerako fatxadetan.
- * Estalkiko planoaren gainean txapitulak antolatzea onartuko da, baldin eta Gipuzkoa Plaza 2 eraikinean daudenen modeloari jarraitzen badiete, betiere Domingo Aguirrebengoaren 1923ko proiektuaren sekzioaren arabera, eta, ardatz bertikalari dagokionez, bat egiten badute fatxada babesteko baoekin.
- * Debekatuta dago karrerapeen arkuetan olanak ezartzea, barrualdean zein kanpoaldean. Karrerape horietako lokaletan dauden eguzkiaz babesteko sistemek barrukoak izan beharko dute.
- * Debekatuta dago bideetan eta lorategietan ibilgailuak sartzeko arrapalak antolatzea. Eraikinen barrualdean jartzekotan, ez dira aldatuko behe oinetan dauden baoak.
- * Lorategiak babesteko erregimena Lorategiei buruzko Ordenantza Partikularrean horietarako ezarritakoa izango da (F maila).
- * Lorategien barruko zein kanpoko jatorrizko altzariak babesten dira, luminariak barne.

Hauek dira Gipuzkoako Plaza multzoaren barruan sartzten diren eta katalogatuta dauden banako elementuak:

1.	Bengoetxea 05	C maila
2.	Kamino 06	C maila
3.	Kamino 07	C maila
4.	Elkano 10	C maila
5.	Gipuzkoa 01 (Aldundiaren Jauregia)	B maila
6.	Gipuzkoa 02	C maila
7.	Gipuzkoa 04	C maila
8.	Gipuzkoa 07	C maila
9.	Gipuzkoa 08	C maila
10.	Gipuzkoa 09	C maila
11.	Gipuzkoa 10	C maila
12.	Gipuzkoa 11	C maila
13.	Gipuzkoa 14	C maila
14.	Gipuzkoa 15	C maila
15.	Gipuzkoa 16	C maila
16.	Gipuzkoa zg (lorategiak)	F maila
17.	Idiakez 02	C maila
18.	Legazpi 09	C maila
19.	Legazpi 12	C maila
20.	Txurruka 02	C maila